# I ARABAKO FORU ALDUNDIA

## Administrazio Xedapenak

*Diputatuen Kontseiluaren Foru Dekretuak*

### OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

**5263**

**55/2009 FORU DEKRETUA, Diputatuen Kontseiluarena, ekainaren 30ekoa. Honen bidez, arautu egin da herritarren eta Arabako Foru Aldundiaren arteko harremanak baliabide elektronikoen bitartez nola gauzatu.**

Foru dekretu honen xedea herritarren eta Arabako Foru Aldundiko Ogasunaren arteko harremanak baliabide elektronikoen bidez nola gauzatu behar diren arautzea da. Hain zuzen ere, ondoko zerbitzuak arautu dira: ordainketak geroratzea eta zatikatzea, berraztertzeko errekurtsoak jartzea, zergei buruzko galdera idatziak aurkeztea, ziurtagiriak eskuratzea eta hainbat zerbitzu informatibo.

Zerbitzu horiek baliabide elektronikoen bidez erabiltzeko oinarri hauek ezarri dira: batetik, herritarrek beren borondatez erabiliko dituzte; bestetik, herritarrek beren eskubideak baliatu ahal izatea bermatuko da, bai eta beren betebeharrak betetzea ere.

Denbora aurrera joan ahala zerbitzuek prestazio gehiago edukiko dituzte eta zerbitzu gehiago abiaraziko dira. Hori dela eta, foru dekretu hau aldian-aldian aldatuko da Arabako Foru Ogasunaren bilakaerara moldatzeko.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak egindako txostena aztertu da.

Horregatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuaren proposamenez, eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran aztertu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

I. KAPITULUA
FORU DEKRETUAREN XEDEA

***1. artikulua. Foru Dekretuaren xedea.***

1. Foru dekretu honen xedea herritarren eta Arabako Foru Aldundiko Ogasunaren arteko harremanak baliabide elektronikoen bidez nola gauzatu behar diren arautzea da, hain zuzen ere ondoko kapituluetan azalduko diren zerbitzuak nola egingo diren. Horrekin batera, dekretu honek herritarrek beren eskubideak erabili ahal izatea eta beren betebeharrak betetzea bermatuko du, eta Administrazioak segurtasun juridikoarekin eta eraginkortasunarekin jardutea eta jardun horren emaitzak baliozkoak izatea ere bai.

2. Zergapekoek beren borondatez erabiliko dituzte foru dekretu honetan arautako zerbitzuak. Nolanahi ere, zerbitzuok erabiltzea hautatuz gero, berariazko arautegian ezarritako xedapen orokorrak aplikatuko zaizkie.

II. KAPITULUA
ORDAINKETAK GERORATZEA ETA ZATIKATZEA

***2. artikulua. Xedea.***

Kapitulu honetan herritarren eskubide hau arautu da: baliabide elektronikoen bidez aurkeztea Arabako Foru Aldundiak kobratu beharreko zorrak eta zehapenak, bilketaren borondatezko aldian daudenak, geroratzeko eta zatikatzeko eskaerak.

***3. artikulua. Betekizun orokorrak.***

1. Zergapekoek baliabide elektronikoen bidez eskatu ahal izango dute zerga zorren zein zehapenen ordainketa geroratzeko edo zatikatzeko, ondoko betekizun orokor hauek betez gero:

# DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA I

## Disposiciones Administrativas

*Decretos Forales del Consejo de Diputados*

### DEPARTAMENTO DE HACIENDA, FINANZAS Y PRESUPUESTOS

**5263**

**DECRETO FORAL 55/2009, del Consejo de Diputados de 30 de junio, que regula la relación por medios electrónicos de las administradas y los administrados con la Hacienda de esta Diputación Foral.**

El objeto de este Decreto Foral es regular la relación por medios electrónicos de los administrados con la Hacienda de la Diputación Foral de Álava. Esta regulación se refiere a unos servicios concretos relacionados con aplazamientos y fraccionamientos de pago, recurso de reposición, consultas tributarias escritas, certificados y determinados servicios informativos.

La regulación normativa de estos servicios por vía electrónica se basa, por lo que se refiere a su utilización, en el principio de voluntariedad para el obligado tributario y pretende garantizar el ejercicio de sus derechos así como el cumplimiento de sus obligaciones.

Con el transcurso del tiempo estos servicios irán incrementando sus prestaciones e, igualmente, se irán añadiendo otros nuevos. Por este motivo, el presente Decreto Foral irá sufriendo periódicas modificaciones a fin de adaptarlo a evolución que, en este sentido, experimente la Hacienda Foral de Álava.

Visto el informe emitido al respecto por el Servicio de Normativa Tributaria.

En su virtud, a propuesta del Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, y previa deliberación del Consejo de Diputados en Sesión celebrada en el día de hoy,

DISPONGO:

CAPÍTULO I
OBJETO DEL DECRETO FORAL

***Artículo 1. Objeto del Decreto Foral.***

1. El presente Decreto Foral tiene por objeto regular la relación por medios electrónicos de los administrados con la Hacienda de la Diputación Foral de Álava, respecto de los servicios que se regulan en los Capítulos siguientes, con la finalidad de garantizar los derechos de aquéllos, el cumplimiento de sus obligaciones y la validez y eficacia de la actividad administrativa en condiciones de seguridad jurídica.

2. La utilización de los servicios a que se refiere este Decreto Foral tendrá carácter voluntario para el obligado tributario, sin perjuicio de que, una vez optado por los mismos, sean de aplicación las disposiciones generales contenidas en su regulación específica.

CAPÍTULO II
APLAZAMIENTOS Y FRACCIONAMIENTOS DE PAGO

***Artículo 2. Objeto.***

El presente Capítulo regula el derecho de los obligados tributarios a solicitar, por vía electrónica, aplazamientos y fraccionamientos de pago de deudas y sanciones que se encuentren en período voluntario de recaudación y cuyo ingreso corresponda a la Hacienda Foral de Álava.

***Artículo 3. Requisitos generales.***

1. Los obligados tributarios podrán solicitar por vía electrónica el aplazamiento o fraccionamiento de pago tanto de las deudas tributarias, como de las sanciones, siempre que se cumplan los siguientes requisitos generales:

a) Zerga zorra edo zehapena bilketaren borondatezko aldian egon behar da.
b) Eskabidea zergapekoek edo beraien legezko ordezkariek aurkeztu behar dute; borondatezko ordezkari batek ezin du aurkeztu.

2. Kapitulu honetan araututako zerbitzuak ezin erabili izango dira Arabako Lurralde Historikoaren Zergabilketaren Araudi Orokorra onartzen duen maiatzaren 10eko 48/1994 Foru Dekretuko 88. artikuluan eta hurrengoetan aipatzen den gerorapen kontuko zorrekin, ez eta zerga zorrak eta zehapenak azkentzeko beste modu batzuekin ere.

3. Autolikidazio bat baliabide elektronikoen bitartez aurkezten bada, haren ondoriozko ordainketa geroratzeko edo zatikatzeko eskabidea berarekin batera aurkeztu behar da, eta modu berean aurkeztu behar dira eskabideari atxiki beharreko agiriak, Arabako Lurralde Historikoaren Zergabilketaren Araudi Orokorra onartzen duen maiatzaren 10eko 48/1994 Foru Dekretuan xedatutakoarekin bat etorriz.

***4. artikulua. Ordainketa geroratzeko edo zatikatzeko eskabidea.***

1. Baliabide elektronikoen bitartez ordainketa bat geroratzeko edo zatikatzeko eskatu nahi duten zergapekoak Arabako Foru Aldundiak Interneten daukan web orrian sartu behar dira: www.alava.net.

2. Gero “diputaciondigital” atalean sartu behar dira eta beren burua identifikatu behar dute onartzen diren identifikazio sistemetako bat erabilita.

3. Ondoren “gerorapenak eta zatikapenak” zerbitzua hautatu behar dute; bertan gerorapena edo zatikapena hauta dezakete.

Eskatzen duen eragiketari dagokion eskabide eredua bete behar dute eta gero Arabako Lurralde Historikoaren Zergabilketaren Araudi Orokorra onartzen duen maiatzaren 10eko 48/1994 Foru Dekretuan xedatutakoaren arabera behar diren agiri guztiak atxiki.

4. Eskabidea bete ondoren “diputaciondigital” zerbitzu elektronikoaren bidez aurkez dezakete.

5. Foru Aldundiak “diputaciondigital” zerbitzuaren bidez erregistratuko ditu zergapekoek baliabide elektronikoen bitartez aurkezten dituzten gerorapen eta zatikapen eskabide guztiak.

***5. artikulua. Ebazpena.***

1. Zerga Administrazioaren ebazpena zergapekoei jakinaraziko zaie, Arabako Zergei buruzko 6/2005 Foru Arau Orokorrean xedatu den bezala.

2. Aurreko idatz zatian xedatutakoa gorabehera, eta informazioa emateko soilik, Zerga Administrazioak mezu elektronikoa bidaliko die eskabidean aukera hori hautatzen dutenei ordainketa geroratzeko edo zatikatzeko eskaerari buruzko ebazpenaren berri emateko, laburlabur.

Horretarako, Zerga Administrazioak aurreko paragrafoan adierazitako informazioa bidaliko du zergapekoak esandako helbide elektronikora.

Mezu elektroniko hori ez jasotzeak, arrazoia gorabehera, ez du inolako ondorio juridikorik izango, eta hura ezin irakurri izateak ere ez.

3. Zergapekoek ordainketa geroratzeko edo zatikatzeko eskaerari buruzko ebazpenaren berri jakin ahal izango dute “diputaciondigital” orriko “gerorapenak eta zatikapenak” zerbitzuaren bitartez. Web orrian ebazpenaz ageri dena informaziorako izango da eta aurreko idatz zatian ezarritako guztia aplikatzen zaio.

***6. artikulua. Eskabidea aztertzea.***

Zergapekoek beren eskabideak aztertu ahal izango dituzte “diputaciondigital” orriko “gerorapenak eta zatikapenak” zerbitzuaren bitartez, bertan ezarritakoari lotuta.

a) Las deudas tributarias y las sanciones deberán encontrarse en período voluntario de recaudación.
b) La solicitud deberá realizarse por el obligado tributario o, en su caso, por su representante legal, no siendo posible que la solicitud se efectúe a través de representación voluntaria.

2. Quedan excluidas de lo dispuesto en el presente Capítulo las deudas objeto de la cuenta aplazamiento a que se refiere el artículo 88 y siguientes del Decreto Foral 48/1994, de 10 de mayo, por el que se aprueba el Reglamento de Recaudación para el Territorio Histórico de Álava, así como otras formas de extinción de las deudas tributarias y sanciones.

3. En el supuesto de presentación de autoliquidaciones por vía electrónica, la solicitud de aplazamiento o fraccionamiento se efectuará junto con aquélla, aportándose por dicha vía la documentación que deba adjuntarse a la solicitud, de acuerdo con lo dispuesto en el Decreto Foral 48/1994, de 10 de mayo, por el que se aprueba el Reglamento de Recaudación para el Territorio Histórico de Álava.

***Artículo 4. Solicitud de aplazamiento o fraccionamiento.***

1. El obligado tributario que vaya a solicitar un aplazamiento o fraccionamiento por vía electrónica se conectará, a través de internet, con la dirección de la Diputación Foral de Álava www.alava.net.

2. A continuación se accederá a “diputaciondigital”, debiendo el obligado tributario identificarse de acuerdo con los sistemas de identificación admitidos en “diputaciondigital”.

3. El obligado tributario seleccionará el servicio de “aplazamientos y fraccionamientos” y, una vez en este servicio, podrá acceder al apartado de solicitud de aplazamiento o fraccionamiento.

El obligado tributario cumplimentará el modelo de solicitud de aplazamiento o fraccionamiento, anexando a la misma los documentos que corresponda según lo dispuesto en el Decreto Foral 48/1994, de 10 de mayo, por el que se aprueba el Reglamento de Recaudación para el Territorio Histórico de Álava.

4. Una vez cumplimentada la solicitud, el obligado tributario podrá presentarla por vía electrónica a través de “diputaciondigital”.

5. En el supuesto de que el obligado tributario presente la solicitud de aplazamiento o fraccionamiento por vía electrónica, la Hacienda Foral la registrará a través de “diputaciondigital”.

***Artículo 5. Resolución.***

1. La resolución adoptada por la Administración tributaria se notificará al obligado tributario, de acuerdo con lo establecido en la Norma Foral 6/2005, de 28 de febrero, General Tributaria de Álava.

2. Sin perjuicio de lo dispuesto en el apartado anterior, y con carácter meramente informativo, la Administración tributaria remitirá al obligado tributario, caso de que éste haya seleccionado esta opción, un correo electrónico indicándole, de forma genérica, el resultado de la resolución recaída sobre su solicitud de aplazamiento o fraccionamiento.

A estos efectos la Administración tributaria remitirá la información a que se refiere el párrafo anterior al correo electrónico señalado por el obligado tributario.

La no recepción por cualquier causa de este correo electrónico o la falta de acceso al mismo no producirá ninguna consecuencia jurídica.

3. El obligado tributario tendrá acceso, a través del servicio de “aplazamientos y fraccionamientos” disponible en “diputaciondigital”, al contenido de la resolución recaída sobre su solicitud de aplazamiento o fraccionamiento, la cuál, y en los mismos términos y con los mismos efectos establecidos en el apartado anterior, tendrá carácter informativo.

***Artículo 6. Consulta de la solicitud presentada.***

El obligado tributario, a través del servicio de “aplazamientos y fraccionamientos” disponible en “diputaciondigital” y en los términos contenidos en el mismo, podrá consultar electrónicamente la solicitud presentada.

III. KAPITULUA
BERRAZTERTZEKO ERREKURTSOA

***7. artikulua. Xedea.***

Kapitulu honetan zergapekoen eskubide hau arautu da: baliabide elektronikoen bitartez aurkeztea Arabako Foru Ogasunaren egintzen kontrako berraztertzeko errekurtsoa.

***8. artikulua. Ordezkaritza.***

Zergapekoek, edo beraien legezko ordezkariek, baliabide elektronikoen bitartez aurkeztu ahal izango dituzte berraztertzeko errekurtsoak; ezin izango dituzte aurkeztu borondatezko ordezkarien bidez.

***9. artikulua. Berraztertzeko errekurtsoa aurkeztea.***

1. Baliabide elektronikoen bitartez berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu nahi duten zergapekoak Arabako Foru Aldundiak Interneten daukan web orrian sartu behar dira: www.alava.net.

2. Gero “diputaciondigital” atalean sartu behar dira eta beren burua identifikatu behar dute onartzen diren identifikazio sistemetako bat erabilita.

3. Ondoren “berraztertzeko errekurtsoa” zerbitzua hautatu behar dute eta han errekurtsoa aurkezteko atalean sartu behar dira.

Zergapekoek errekurtsoaren eredua bete behar dute eta gero zergen arloko legerian ezarritakoaren arabera behar diren agiri guztiak atxiki behar dizkiote.

4. Errekurtso eredua bete ondoren “diputaciondigital” zerbitzu elektronikoaren bidez aurkez dezakete.

Hala eginez gero, banku abalaren kopia ere baliabide elektronikoen bitartez aurkeztu behar dute, eta gero, ondoko bost egun baliodunetan, jatorrizko abala aurkeztu beharko dute Zerga Administrazioko zerbitzu egokian.

5. Foru Aldundiak “diputaciondigital” zerbitzuaren bidez erregistratuko ditu zergapekoek baliabide elektronikoen bitartez aurkezten dituzten berraztertzeko errekurtso guztiak.

***10. artikulua. Ebazpena.***

1. Zerga Administrazioaren ebazpena zergapekoei jakinaraziko zaie, Arabako Zergei buruzko 6/2005 Foru Arau Orokorrean xedatu den bezala.

2. Aurreko idatz zatian xedatutakoa gorabehera, eta informazioa emateko soilik, Zerga Administrazioak mezu elektronikoa bidaliko die eskabidean aukera hori hautatzen dutenei ebazpenaren berri emateko, labur-labur.

Horretarako, Zerga Administrazioak aurreko paragrafoan adierazitako informazioa bidaliko du zergapekoak esandako helbide elektronikora.

Mezu elektroniko hori ez jasotzeak, arrazoia gorabehera, ez du inolako ondorio juridikorik izango, eta hura ezin irakurri izateak ere ez.

3. Zergapekoek errekurtsoari buruzko ebazpenaren berri jakin ahal izango dute “diputaciondigital” orriko “berraztertzeko errekurtsoa” zerbitzuaren bitartez. Web orrian ebazpenaz ageri dena informaziorako izango da eta aurreko idatz zatian ezarritako guztia aplikatzen zaio.

***11. artikulua. Berraztertzeko errekurtsoa aztertzea.***

Zergapekoek aurkeztutako errekurtsoak aztertu ahal izango dituzte “diputaciondigital” orriko “berraztertzeko errekurtsoa” zerbitzuaren bitartez, bertan ezarritakoari lotuta.

IV. KAPITULUA
ZERGEI BURUZKO GALDERA IDATZIAK

***12. artikulua. Xedea.***

Kapitulu honetan zergapekoen eskubide hau arautu da: baliabide elektronikoen bitartez zergei buruzko galdera idatziak aurkeztea Arabako Foru Ogasunari.

CAPÍTULO III
RECURSO DE REPOSICIÓN

***Artículo 7. Objeto.***

El presente Capítulo regula el derecho de los obligados tributarios a presentar, por vía electrónica, recurso de reposición contra los actos dictados por la Hacienda Foral de Álava.

***Artículo 8. Representación.***

Los obligados tributarios, o en su caso su representante legal, podrán presentar por vía electrónica el recurso potestativo de reposición, no siendo posible que el mismo se efectúe a través de representación voluntaria.

***Artículo 9. Interposición del recurso de reposición.***

1. El obligado tributario que vaya a interponer un “recurso de reposición” por vía electrónica se conectará, a través de internet, con la dirección de la Diputación Foral de Álava www.alava.net.

2. A continuación se accederá a “diputaciondigital”, debiendo el obligado tributario identificarse de acuerdo con los sistemas de identificación admitidos en “diputaciondigital”.

3. El obligado tributario seleccionará el servicio de “recurso de reposición” y, una vez en este servicio, podrá acceder al apartado de presentación del recurso.

El obligado tributario cumplimentará el modelo de recurso, anexando al mismo los documentos que proceda, de conformidad con lo establecido en la legislación tributaria.

4. Una vez cumplimentado el recurso, el obligado tributario podrá presentarlo por vía electrónica a través de “diputaciondigital”.

En este supuesto, se deberá remitir por esta vía electrónica, en su caso, copia del aval bancario, debiéndose presentar el aval original dentro de los cinco días hábiles siguientes en el Servicio correspondiente de la Administración tributaria.

5. En el supuesto de que el obligado tributario presente el recurso de reposición por vía electrónica, la Hacienda Foral lo registrará a través de “diputaciondigital”.

***Artículo 10. Resolución.***

1. La resolución adoptada por la Administración tributaria se notificará al obligado tributario, de acuerdo con lo establecido en la Norma Foral 6/2005, de 28 de febrero, General Tributaria de Álava.

2. Sin perjuicio de lo dispuesto en el apartado anterior, y con carácter meramente informativo, la Administración tributaria remitirá al obligado tributario, caso de que éste haya seleccionado esta opción, un correo electrónico indicándole de forma genérica, el resultado de la resolución recaída.

A estos efectos la Administración tributaria remitirá la información a que se refiere el párrafo anterior al correo electrónico señalado por el obligado tributario.

La no recepción por cualquier causa de este correo electrónico o la falta de acceso al mismo no producirá ninguna consecuencia jurídica.

3. El obligado tributario tendrá acceso, a través del servicio de “recurso de reposición” disponible en “diputaciondigital”, al contenido de la resolución recaída, la cuál, y en los mismos términos y con los mismos efectos establecidos en el apartado anterior, tendrá carácter informativo.

***Artículo 11. Consulta del recurso de reposición presentado.***

El obligado tributario, a través del servicio de “recurso de reposición” disponible en “diputaciondigital” y en los términos contenidos en el mismo, podrá consultar electrónicamente el recurso presentado.

CAPÍTULO IV
CONSULTAS TRIBUTARIAS ESCRITAS

***Artículo 12. Objeto.***

El presente Capítulo regula el derecho de los obligados tributarios a formular, por vía electrónica, consultas tributarias escritas a la Hacienda Foral de Álava.

***13. artikulua. Ordezkaritza.***

Zergapekoek, edo beraien legezko ordezkariek, baliabide elektronikoen bitartez aurkeztu ahal izango dituzte zergei buruzko galdera idatziak; ezin izango dituzte aurkeztu borondatezko ordezkarien bidez.

***14. artikulua. Nola aurkeztu zergei buruzko galdera idatziak.***

1. Baliabide elektronikoen bitartez zergei buruzko galdera idatzia aurkeztu nahi duten zergapekoak Arabako Foru Aldundiak Interneten daukan web orrian sartu behar dira: www.alava.net.

2. Gero "diputaciondigital" atalean sartu behar dira eta beren burua identifikatu behar dute onartzen diren identifikazio sistemetako bat erabilita.

3. Ondoren "zergei buruzko galderak" zerbitzua hautatu behar dute eta han galdera mota hautatzeko atalean sartu behar dira.

Zergapekoek galderaren eredua bete behar dute eta gero nahi dituzten agiri guztiak atxiki ditzakete.

4. Galdera idatzi ondoren "diputaciondigital" zerbitzu elektronikoaren bidez aurkez dezakete.

5. Foru Aldundiak "diputaciondigital" zerbitzuaren bidez erregistratuko ditu zergapekoek baliabide elektronikoen bitartez aurkezten dituzten zergei buruzko galdera idatzi guztiak.

***15. artikulua. Erantzuna.***

1. Zerga Administrazioaren erantzuna zergapekoei jakinaraziko zaie, Arabako Zergei buruzko 6/2005 Foru Arau Orokorrean xedatu den bezala.

2. Aurreko idatz zatian xedatutakoa gorabehera, eta informazioa emateko soilik, Zerga Administrazioak mezu elektronikoa bidaliko die eskabidean aukera hori hautatzen dutenei galderari erantzun zaiola adierazteko.

Horretarako, Zerga Administrazioak aurreko paragrafoan adierazitako informazioa bidaliko du zergapekoak esandako helbide elektronikora.

Mezu elektroniko hori ez jasotzeak, arrazoia gorabehera, ez du inolako ondorio juridikorik izango, eta hura ezin irakurri izateak ere ez.

3. Zergapekoek erantzunaren berri jakin ahal izango dute "diputaciondigital" orriko "zergei buruzko galderak" zerbitzuaren bitartez. Web orrian erantzunaz ageri dena informaziorako izango da eta aurreko idatz zatian ezarritako guztia aplikatzen zaio.

***16. artikulua. Zergei buruzko galderak aztertzea.***

Zergapekoek beren galderak aztertu ahal izango dituzte "diputaciondigital" orriko "zergei buruzko galderak" zerbitzuaren bitartez, bertan ezarritakoari lotuta.

V. KAPITULUA
ZIURTAGIRIAK

***17. artikulua. Xedea.***

Kapitulu honetan zergapekoen eskubide hau arautu da: baliabide elektronikoen bitartez aurkeztea Arabako Foru Ogasunarekiko zerga egoerari buruzko ziurtagiriak.

***18. artikulua. Ordezkaritza eta aplikazio eremua.***

1. Zergapekoek, edo beraien legezko ordezkariek, baliabide elektronikoen bitartez eskatu ahal izango dituzte ondoko idatz zatian zehaztuko diren ziurtagiriak; ezin izango dituzte eskatu borondatezko ordezkarien bidez.

2. Baliabide elektronikoen bitartez ondokoei dagozkien zerga betebeharretan egunean egoteari buruzko ziurtagiriak eska daitezke:

a) Zerga egoera.
b) Azpikontratazioa.
c) Dirulaguntzak.
d) Administrazio publikoekin egindako kontratuak.

***Artículo 13. Representación.***

Los obligados tributarios, o en su caso su representante legal, podrán formular por vía electrónica consultas tributarias escritas, no siendo posible que la misma se efectúe a través de representación voluntaria.

***Artículo 14. Formulación de consultas tributarias escritas.***

1. El obligado tributario que desee formular consultas tributarias escritas por vía electrónica se conectará, a través de internet, con la dirección de la Diputación Foral de Álava www.alava.net.

2. A continuación, se accederá a "diputaciondigital", debiendo el obligado tributario identificarse de acuerdo con los sistemas de identificación admitidos en "diputaciondigital".

3. El obligado tributario seleccionará el servicio de "consultas tributarias" y, una vez en este servicio, podrá acceder al apartado de modelo de selección de la tipología de la consulta.

El obligado tributario cumplimentará el modelo de consulta, anexando al mismo los documentos que estime oportunos.

4. Una vez cumplimentada la consulta, el obligado tributario podrá presentarla por vía electrónica a través de "diputaciondigital".

5. En el supuesto de que el obligado tributario presente la consulta tributaria por vía electrónica, la Hacienda Foral la registrará a través de "diputaciondigital".

***Artículo 15. Contestación.***

1. La contestación adoptada por la Administración tributaria se notificará al obligado tributario, de acuerdo con lo establecido en la Norma Foral 6/2005, de 28 de febrero, General Tributaria de Álava.

2. Sin perjuicio de lo dispuesto en el apartado anterior, y con carácter meramente informativo, la Administración tributaria remitirá al obligado tributario, caso de que éste haya seleccionado esta opción, un correo electrónico indicándole la existencia de contestación.

A estos efectos la Administración tributaria remitirá la información a que se refiere el párrafo anterior al correo electrónico señalado por el obligado tributario.

La no recepción por cualquier causa de este correo electrónico o la falta de acceso al mismo no producirá ninguna consecuencia jurídica.

3. El obligado tributario tendrá acceso, a través del servicio de "consultas tributarias" disponible en "diputaciondigital", al contenido de la contestación emitida, la cuál, y en los mismos términos y con los mismos efectos establecidos en el apartado anterior, tendrá carácter informativo.

***Artículo 16. Consulta de la consulta tributaria.***

El obligado tributario, a través del servicio de "consultas tributarias" disponible en "diputaciondigital" y en los términos contenidos en el mismo, podrá examinar la consulta presentada.

CAPÍTULO V
CERTIFICADOS

***Artículo 17. Objeto.***

El presente Capítulo regula el derecho de los obligados tributarios a solicitar, por vía electrónica, determinados certificados sobre su situación tributaria respecto de la Hacienda Foral de Álava.

***Artículo 18. Representación y ámbito de aplicación.***

1. Los obligados tributarios, o en su caso su representante legal, podrán solicitar por vía electrónica los certificados a que se refiere el apartado siguiente, no siendo posible que la misma se efectúe a través de representación voluntaria.

2. Los certificados que se podrán solicitar por vía electrónica son los de estar al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias que se correspondan con las siguientes opciones:

a) Situación tributaria.
b) Subcontratación.
c) Subvenciones.
d) Contratación con las Administraciones públicas.

Aurrean adierazitako ziurtagirietako bat eskatzen duen zergapeko bat ez bada agertzen zergapekoen erregistroan, hori jasotzen duen ziurtagiria emango zaio.

***19. artikulua. Ziurtagiriak eskatzea.***

1. Baliabide elektronikoen bitartez ziurtagiri bat eskatu nahi duten zergapekoak Arabako Foru Aldundiak Interneten daukan web orrian sartu behar dira: www.alava.net.

2. Gero "diputaciondigital" atalean sartu behar dira eta beren burua identifikatu behar dute onartzen diren identifikazio sistemetako bat erabilita.

3. Ondoren "ziurtagiriak" zerbitzua hautatu behar dute eta han eskabidearen atalean sartu behar dira.

Gero nahi duten ziurtagiria hautatu behar dute (foru dekretu honetako 18. artikuluko 2. idatz zatian adierazi direnetako bat).

4. Eskabidea bete ondoren "diputaciondigital" zerbitzu elektronikoaren bidez aurkez dezakete.

5. Foru Aldundiak "diputaciondigital" zerbitzuaren bidez erregistratuko ditu eskabideak.

***20. artikulua. Ziurtagiriak ematea.***

1. Zerga Administrazioak egindako ziurtagiriak (edo ukapenak, kasuan kasukoa) ziurtagirien zerbitzuko kontsulten atalean agertuko dira.

2. Informazioa emateko soilik, Zerga Administrazioak mezu elektronikoa bidaliko die eskabidean aukera hori hautatzen dutenei eskatutako ziurtagiria edo txostena eskuragarri dagoela adierazteko.

Horretarako, Zerga Administrazioak aurreko paragrafoan adierazitako informazioa bidaliko du zergapekoak esandako helbide elektronikora.

Mezu elektroniko hori ez jasotzeak, arrazoia gorabehera, ez du inolako ondorio juridikorik izango, eta hura ezin irakurri izateak ere ez.

3. Zergapekoek Zerga Administrazioak egindako ziurtagiria eskuratu ahal izango dute "diputaciondigital" orriko "ziurtagiriak" zerbitzuaren bitartez.

***21. artikulua. Eskabideak aztertzea.***

Zergapekoek eskatutako ziurtagiriak aztertu ahal izango dituzte "diputaciondigital" orriko "ziurtagiriak" zerbitzuaren bitartez, bertan ezarritakoari lotuta.

***22. artikulua. Emandako ziurtagiriak hirugarrenek berrestea eta balidatzea.***

Zerga Administrazioak ematen dituen ziurtagiri positiboek egiaztapen kode elektronikoa edukiko dute; kodearen bidez hirugarrenek ziurtagiriaren osotasuna, benetakotasuna eta balioa kontrolatu ahal izango dituzte.

Horretarako, zergapekoek ziurtagiria eman behar diote hirugarrenari eta hura Arabako Foru Aldundiaren www.alava.net orrian eta gero ziurtagiriak berresteko atalean sartu behar da.

VI. KAPITULUA
ZERBITZU INFORMATIBOAK

***23. artikulua. Arabako Foru Ogasunaren zerbitzu informatiboak.***

Arabako Foru Ogasunaren zerbitzuak (zergadunaren egutegia, berrien harpidetza, ohiko galderen eta zergei buruzko galderen bilduma, gertaerei buruzko informazioa) orokorrak dira. Beraz, haietan ageri dena ez dagokio zergapeko jakin bati; informaziorako baino ez da eta ez du inolaz ere biderik ematen zergen arloko legerian ezarritakoa ez betetzeko.

En el caso de que el contribuyente que haya solicitado cualquiera de los certificados señalados en las letras anteriores no figure en el registro de obligados tributarios, recibirá un certificado de que no figura en el mismo.

***Artículo 19. Solicitud de certificados.***

1. El obligado tributario que desee un certificado por vía electrónica se conectará, a través de internet, con la dirección de la Diputación Foral de Álava www.alava.net.

2. A continuación se accederá a "diputaciondigital", debiendo el obligado tributario identificarse de acuerdo con los sistemas de identificación admitidos en "diputaciondigital".

3. El obligado tributario seleccionará el servicio de "certificados" y, una vez en este servicio, podrá acceder al apartado de solicitud.

El obligado tributario seleccionará el certificado que desea solicitar entre las opciones indicadas en el apartado 2 del artículo 18 del presente Decreto Foral.

4. Una vez cumplimentada la solicitud, el obligado tributario la remitirá por vía electrónica a través de "diputaciondigital".

5. La Hacienda Foral registrará la solicitud del obligado tributario a través de "diputaciondigital".

***Artículo 20. Emisión del certificado.***

1. El certificado emitido por la Administración tributaria, o en caso de denegación el informe correspondiente, se insertará en el apartado de consulta del servicio de certificados.

2. Con carácter meramente informativo, la Administración tributaria remitirá al obligado tributario, caso de que éste haya seleccionado esta opción, un correo electrónico indicándole la disponibilidad del certificado o informe.

A estos efectos la Administración tributaria remitirá la información a que se refiere el párrafo anterior al correo electrónico señalado por el obligado tributario.

La no recepción por cualquier causa de este correo electrónico o la falta de acceso al mismo no producirá ninguna consecuencia jurídica.

3. El obligado tributario tendrá acceso, a través del servicio de "certificados" disponible en "diputaciondigital", al contenido del certificado emitido por la Administración tributaria.

***Artículo 21. Consulta de la solicitud presentada.***

El obligado tributario, a través del servicio de "certificados" disponible en "diputaciondigital" y en los términos contenidos en el mismo, podrá consultar el tipo de certificado solicitado.

***Artículo 22. Confirmación y validación por un tercero de los certificados emitidos.***

Los certificados positivos emitidos por la Administración tributaria llevarán un código de verificación, generado electrónicamente, que permita contrastar su integridad, autenticidad y validez por un tercero.

A tal efecto, el obligado tributario deberá facilitar el certificado emitido por la Administración tributaria al tercero, quien se conectará, a través de internet, con la dirección de la Diputación Foral de Álava www.alava.net seleccionando a continuación el apartado relativo a la confirmación de certificados.

CAPÍTULO VI
SERVICIOS DE CARÁCTER INFORMATIVO

***Artículo 23. Servicios de carácter informativo de la Hacienda Foral de Álava.***

Los servicios de la Hacienda Foral de Álava, tales como el calendario del contribuyente, suscripción a novedades, buscador preguntas más frecuentes y consultas tributarias, e información segmentada de eventos, tienen carácter general y, al no referirse de forma concreta y determinada a la específica situación del obligado tributario, tienen carácter meramente informativo no pudiendo, en modo alguno, eximir o justificar el incumplimiento de las obligaciones resultantes de la legislación tributaria.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa. Foru dekretu hau ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Bigarrena. Aurreko xedapenean ezarritakoa eragotzi gabe, foru dekretu honetako 3. artikuluko 3. idatz zatian ezarritakoa Arabako Foru Aldundiak gerorapen edo zatikapen eskaerak autolikidazioekin batera aurkezteko baliabide teknikoak zergapekoen eskura jartzen dituenetik aurrera aplikatuko da. Bitartean, eskabideak autolikidazioen ondoren aurkeztuko dira baliabide elektronikoen bitartez, haiek norberaren borondatez aurkezteko epealdiaren barruan, eta gehienez ere borondatezko epealdia amaitu ondoko lau egun baliodunetan.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko ekainaren 30a.– Diputatu Nagusia, XABIER AGIRRE LÓPEZ.– Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko Foru Diputatua, JOSÉ LUIS CIMIANO RUIZ.– Ogasun Zuzendaria, JOSU ZUBIAGA NIEVA.

DISPOSICIONES FINALES

Primera. El presente Decreto Foral entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el BOTHA.

Segunda. Sin perjuicio de lo establecido en la Disposición anterior, lo previsto en el apartado 3 del artículo 3 del presente Decreto Foral será de aplicación en el momento en que la Diputación Foral de Álava ponga a disposición de los obligados tributarios los medios técnicos necesarios para que la solicitud de aplazamiento o fraccionamiento se realice en el mismo momento de la presentación de la autoliquidación. Mientras tanto, dicha solicitud se presentará por vía electrónica con posterioridad a la presentación de la autoliquidación, dentro del plazo de presentación voluntaria y como máximo dentro de los cuatro días hábiles siguientes a la finalización del período voluntario.

Vitoria-Gasteiz, 30 de junio de 2009.– Diputado General, XABIER AGIRRE LÓPEZ.– Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, JOSÉ LUIS CIMIANO RUIZ.– Director De Hacienda, JOSU ZUBIAGA NIEVA.

*Foru Aginduak*

## FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

**5423**

**361/2009 FORU AGINDUA, uztailaren 17koa. Honen bidez, hautatuen behin-behineko zerrenda argitaratzea Arabako Foru Aldundiko Administrazio Orokorrean 2007ko enplegu eskaintza publikoan sistema irekiaren txanda orokorraren bidez karrerako funtzionario gisa sartzeko, deialdi honetan: administrazio bereziko eskala, zerbitzu berezien azpieskala, egiteko berezien klasea, ANTOLAKETA, A taldea.**

Abenduaren 28ko 187/2007 Foru Arauaren bitartez onartu ziren Arabako Foru Aldundiko Administrazio Orokorraren 2007ko enplegu eskaintza publikoa arautzen duten oinarri orokorrak.

10.4 oinarri orokorrean aurreikusi zen epaimahaiak hautatuen behin-behineko zerrenda egingo duela, dagokien lantoki zehatza adierazten duena, eta zerrenda hori, Foru Administrazioaren Saileko diputatuaren Foru Agindu bidez, ALHAOn argitaratuko dela, erreklamazioak aurkezteko hamar egun balioduneko epea ezarriz.

Deialdiko epaimahaiak egindako proposamena ikusita.

Diputatu Nagusiaren abuztuaren 8ko 186/2007 Foru Dekretuan, Foru Aldundiaren Sailak zehazten dituenean, Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 30eko 154/1993 Foru Dekretuan, Funtzio Publikoaren alorreko eskurantzak ezartzen dituenean, eta maiatzaren 20ko 40/2008 Foru Dekretuan, Funtzio Publikoaren alorrean eskumena duen Sailaren egitura organiko eta funtzionala onesten duenean, ezarritakoarekin bat etorriz,

XEDATU DUT:

Lehenengoa. Hautatuen behin-behineko zerrenda argitaratzea, dagozkien destino lanpostuak jasota, Arabako Foru Aldundiko Administrazio Orokorrean 2007ko enplegu eskaintza publikoaren bidez karrerako funtzionario gisa sartzeko, deialdi honetan: administrazio bereziko eskala, zerbitzu berezien azpieskala, egiteko berezien klasea, ANTOLAKETA, A taldea:

| IZENA | LANPOSTUA | KODEA |
|---|---|---|
| Izaskun Vallejo Pérez | Kalitateko kudeaketa teknikaria | 1211.001 |
| Pablo Martínez de Arbulo Echevarría | Antolaketako teknikaria | 1156.001 |
| Nagore García Velázquez | Funtzio Publikoko teknikaria | 1216.001 |

*Órdenes Forales*

## DEPARTAMENTO DE ADMINISTRACIÓN FORAL

**5423**

**ORDEN FORAL número 361/2009, de 17 de julio, por la que se publica la Relación Provisional de personas seleccionadas en la Convocatoria para el ingreso como funcionario/a de carrera en la escala de administración especial, subescala servicios especiales, clase cometidos especiales, ORGANIZACIÓN, Grupo A, por el turno general del sistema de acceso libre, correspondiente a la oferta de empleo público para el año 2007 de la Administración General de la Diputación Foral de Álava.**

Por Orden Foral nº 187/2007, de 28 de diciembre, se aprueban las bases generales reguladoras de la oferta de empleo público para el año 2007 de la Administración General de la Diputación Foral de Álava.

La base general 10.4 prevé que se confeccionará por el Tribunal una relación provisional de seleccionados/as indicando el puesto de destino concreto que les corresponde y que dicha relación se publicará, mediante Orden Foral del Diputado de Administración Foral, en el BOTHA, estableciéndose un plazo de reclamaciones de diez días hábiles.

A la vista de la propuesta efectuada por el Tribunal de la Convocatoria.

De conformidad con lo establecido en el Decreto Foral del Diputado General 186/2007, de 8 de agosto, por el que se determinan los Departamentos de la Diputación Foral, y con los Decretos Forales 154/1993 del Consejo de Diputados de 30 de julio, por el que se establecen las atribuciones en materia de Función Pública y 40/2008, de 20 de mayo, por el que se aprueba la estructura orgánica y funcional del Departamento competente en materia de Función Pública,

DISPONGO:

Primero. Publicar la Relación Provisional de personas seleccionadas, con indicación de los puestos de destino que les corresponden, en la Convocatoria para el ingreso como funcionario/a de carrera en la escala de administración especial, subescala servicios especiales, clase cometidos especiales, ORGANIZACIÓN, Grupo A, correspondiente a la oferta de empleo público para el año 2007 de la Administración General de la Diputación Foral de Álava:

| NOMBRE | PUESTO | CÓDIGO |
|---|---|---|
| Izaskun Vallejo Pérez | Técnico/a de Gestión de Calidad | 1211.001 |
| Pablo Martínez de Arbulo Echevarría | Técnico/a de Organización | 1156.001 |
| Nagore García Velázquez | Técnico/a de Función Pública | 1216.001 |